

IKASTOLEK ONGI ETORRIA EMANGO DIETE INAUTERIEI



Urumeako Iñude eta artzaiak agintariei zapatak garbitzen.



Kalderero txikiak, neurriko kazuela eta paderekin.

Langile ikastolak Kaldereroak ospatuko ditu, gaur; Urumeak 'Iñude eta Artzaien' konpartsa, igandean

■ Langileko konpartsa 15:00etan aterako da Meabetik eta Plaza Berrian egingo du ekitaldia ■ Urumeakoa igande eguerdian aterako da, 12:00etan eta ekitaldia Latsunbeko futbol kanpoan egingo du.

URUMEA eta Langile ikastolek Inauteriei ongi etorri agurra egiteko ekitaldi bana antolatzen dute urtero: Urumeak *Iñude eta artzaien* konpartsa egiten du eta Langilek Kalderero festa. Larunbat gauetan, berriz, Elur-Txorik hartuko die erreleboa gaztetxoek.

Hungariatik Plaza Berriara Arratsaldeko 15:00etan abiatuko dira Kalderero gaxtetxoak Meabetik eta Urbieta kalean barrena etorriko dira.

Denera, 2 eta 9 urte bitarteko 420 ikasle aterako dira, irakasle eta gurasoez gain.

Jantzi koloretsu, zintzilario, zartagi eta beste, han iritsiko dira denak kantatu, dantzatu eta zarata aterez. Txikitxoek gurdi gainean joango dira, datorren urterako bidea ondo ikasteko. Plaza Berriara iristean, akanpalekua jarri, sua piztu eta han egingo dute ekitaldi nagusia, hartza lagun dutela. Dantzak eta kantuak bukatu ondorenean, kalderero

txikiak txokolate bero-beroa izango dute.

'Iñude eta Artzaien'

Urumea ikastolak *Iñude eta Artzaien* konpartsa antzetzuko du igandean. Eguerdiko 12:00etan ikastolatik atera eta, kaxkotik barrena, Latsunbe Berriko futbol zelaira joango dira dantzan. Han antzetzuko dute ekitaldi nagusia: iñudeak daramazkiten haurrei txertoa eman eta agintariei aurkeztuko dizkiete beren izenak erre-

gistroan jartzeko. Ekitaldi nagusiaren ondoren, kaxkotik barrena, ikastola aldera joko dute, ostera. Udaletxeko plazan azken arin-arina dantzatu eta ikastolara.

Konpartsa 120 lagunek osatzen dute. Gehienak dantzariak dira, baina, pertsonaia asko biltzen ditu: alkatea, umezaina, barkileroa, globeroa, zapata garbitzailea... Konpartsak 22 musikari ere baditu. Aurten bederatzigarren edizioa du. □

GREBA SELAK ETA SAVERA SVS-EN

Selak eta Saverako langileek hilabete daramakite greban

SELAK eta Savera SVS, Grupo Saverako bi enpresetako langileak huelga mugagabea egiten ari dira. Langileengandik jasotako informazioaren arabera, gauzak lehen bezala segitzen du, eta ez du konpontzeko itxuririk. Kronikari adierazi diotenez, enpresa zenbait langileri despido kartak bidaltzen hasi da.

Futbol partidua Zubipen

Bi enpresetako langileak futbol partidua jokatuko dute gaur, Zubipen, greba hasi zutenetik hilabete dela-eta. Partidua goizeko 11:00-etan da. □

Helduen Hezkuntzan matrikulatzeko gaur azken eguna

HHIk (EPAk) matrikula zabalik du kurtsoaren bigarren lauhilekoan izena emateko. Helduen Hezkuntza Iraunkorra Jaurritzak finantziatzen du eta debalde da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ateratzeko aukera ematen du.

HHI Antziola 62an dago, honako ordutegi honetan eman liteke izena: goizetan, 12:00-13:00 eta arratsaldeetan 17:30-19:00. Telefonoz ere eman liteke izena: ☎ 943-335318. □


Santa Agedako entsaioak Ereñotzun

DATORREN astelehenean da Santa Ageda bezpera eta taldeak ari dira beren entsaioak egiten. Ereñotzuko taldea aurreko ostiralean ere bildu zen eta gaur bilduko da berriz: iluntzeko 21:00etan Ur-Mia elkarteke lokalean. □

SAGARDOTEGIA
IPARRAGIRRE
HERNANIKO SAGARDOA OSINAGA AUZOA
943 55 03 28 Tel. 943 55 03 28

Asteazkenetik larunbatera zabalik. Larunbat eguerdian enkarguz.

Jatetxea



Venta Berri
Arano - Nafarroa
(948) 51 40 18
Larunbatetan itxita.

AMEGAR, C. B.
ETXE TRESNAK
SUKALDE ALTZARIAK
HORMA ARMARIOAK
Neurrira egiten ditugu.
Izpizua 27

ELEKTROGAILUAK - TB - BIDEOAK - HI-FI - OPARIAK
Txirrita kalea 15

Tel 943 551125-Faxa 943 551603
HERNANI (Gipuzkoa)

Arrigoain
jatetxea

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Karta

Santa Barbara 87 (Harrobian)
☎ 943 55 00 97
-Astelehen eta astearte gauetan itxia-

www.hkronika.com
kronika interneten
Hilabete guztiko kronikak, elkarrizketak, loturak...

Frantziako poliziak Gurutz Arrospide hernaniarra atxilotu du, ETA-ren kontrako operazioan

■ Poliziak beste bost pertsona ere atxilotu ditu ■ Hernaniko Askatasunak asanblea eta manifestazioa deitu ditu gaurko: 20:00etan Gudarien plazan.

POLIZIAK Gurutze Arrospide 49 urteko hernaniarra eta beste bost pertsona atxilotu ditu Bordelen. Operazioan dokumentazioa, armak eta esplosiboak ere aurkitu ditu poliziak, Mariano Rajoy Espainiako Barne ministroak adierazi duenez.

Le Vert epaileak agindutako operazioa atzo goizeko hamararak aldera hasi zen eta atzo

iluntzean artean isteko zegoen. Poliziaren ustez, Gurutze Arrospide ETAK Frantzian dituen erreserbako taldeen buruetako bat da.

Ez da hernaniarra atxilotzen duten aurreneko aldia. Arrospidek 1988an aldegin eta 1989an atxilotu zuten Iparraldean. Espainiara eraman eta epaileak libre utzi zuen bere kontrako

auzirik ez zegoela-eta. Beranduago, Audientzia Nazionalak atxilotzeko agindua eman zuen.

Asanblea eta manifestazioa Hernaniko Askatasunak atxilotetako salatzeko asanblea eta manifestazioa egin zituen atzo iluntzean. Gaur ere biak konbokatuta ditu, 20:00etan. □

XALAPARTA ELKARTEA



Koadrila afal ondoan, Xalaparta elkarteak sagardo txapelketan.

Xalapartak urteko asanblea egingo du igandean

■ Deialdiak goizeko 10:00etan eta 10:30etan izango dira, elkartearen bertan.

URTEROKO batzar orokorra datorren igandean egingo dute Xalaparta elkarteak. Sei puntu eztabaidatuko dituzte: 1) Nor etorri den konprobatu. 2) Aurreko asanbleako akta irakurri eta onartu.

3) 2001eko balantze ekonomiko irakurri eta onartu. 4) Urtean zehar egin diren ekintzen informea. 5) Bazkide berriak onartu. Eta baja eta titular aldaketak. 6) Eskari eta galderak.

Asistentzia derrigorra Asanbleara agertzea derrigorra izango da. Agertzen ez den bazkideak 12 euroko multa izango du, eta asanbleak erabakitakoa onartu beharra, noski. □

Igerilekuan jolasak egingo dituzte umeentzat

■ Datorren igandean dira ■ 10:30etatik 12:30etara izango da jolaserako aukera.

KIROLDEGIKO igerilekuan bi monitore eta jokuak jarriko dituzte, azaltzen diren umeek jolas egiteko. Gurasoren batek umeekin jolas egin nahi badu

ere, jokuak utziko dizkiete. Datorren igandean izango da goizeko 10:30etatik 12:30etara.

Bi kale erabiliko dituzte horretarako; igeri egitera agertzen

den jendeak aukera izango du, beraz. Orain bi aste egin zuten proba eta izandako erantzun ona ikusita gehiagotan egitekoak dira. □

ESKOLARTEKO KIROLA -ASTEBURUKO PARTIDUAK-							
SASKIBALOA	TALDEAK	NON	BIHAR	FUTBOLA	TALDEAK	NON	BIHAR
Infantilak	Inmaculada-Langile	Kiroldegia	11:45	Infantil neskek	Langile-Lizeotarrak	Donostia	
Alebin neskek	Urumea-Axulak	Kiroldegia	9:15	Infantil mutilak	Urumea-Alkartasuna	Zubipen	9:00
Alebin mutilak	Langile A-C. Eraso	Kiroldegia	9:15	Alebinak	Elizatz A-Inmaculada	Zubipen	9:00
Alebin neskek	Zuriola-Elizatz	Donostia		Alebinak	Elizatz B-Urumea	Zubipen	9:00
PELOTA	TALDEAK	NON	BIHAR	Alebinak	Langile C-Langile B	Zubipen	11:15
Infantilak	Elizatz-Igeldo A	Altzan	17:10	FUTBOL SALA	TALDEAK	NON	BIHAR
Infantilak	Langile B-La Salle	Atano III	19:00	Benjaminak	Elizatz A-Elizatz B	Kiroldegia	9:15
Benjaminak	Langile A-Langile B	Kiroldegia	9:15	Benjaminak	Langile C-Inmaculada	Kiroldegia	10:00
Benjaminak	Langile B-Langile C	Kiroldegia	10:00	Benjaminak	Langile A-Langile B	Kiroldegia	10:45
Benjaminak	Elizatz-Urumea	Kiroldegia	10:45				

*Eskolarteko kirolean, kirol ezberdinak egiten dituzte gazteek. Asteburu honetan bigarren zikloa hasiko da: lehen zikloko kirolez gain futbola ere izango dute bihar.

PELOTA -Euskal Herriko Txapelketa-

Hernaniko zazpi pelotari finalaurretik gertu

■ Biharko partiduetan erabakiko da semifinaletara nor pasako den ■ 15:00etan kiroldegian.

EUSKAL Herriko txapelketan fin ari dira Hernaniko pelotariak. Paleta goman Goiatz Manzidor eta Amaia Martinezek partidu guztiak irabazi dituzte eta Patricia Hoz eta Ixiar Urdangarinek ere bai, jubeniletan. Manzidor-Martinez bikoteak bihar jokatu du ligilako azken partidu eta Hoz-Urdangarin bikoteak bi partidu falta ditu. Bi bikoteak finalaurrekoetan izango dira, galdu ala irabazi.

Eskuz, gazteak fuerte Alvarez eta San Sebastian jubenilek ere jokatu du lau partidua irabazi egin dituzte. Bihar dute ligilako azken partidua. Hala ere klasifikatzeotan irabazi egin beharko dute, edo galduta ere tanto asko egin. Finalaurrekoetatik gertu dagoen zazpigarren pelotaria Mikel Arrieta kade-tea da. Buruz buru jokatu du bihar eta irabazi egin beharko du finalaurrekoetara pasatzeko. □

Euskal Herriko txapelketa	
Bihar kiroldegian 15:00etan hasita	
Eskuz banaka kadeteak	Arrieta / Gure Txoko (Bera)
Eskuz binaka jubenilak	Alvarez-San Sebastian / Pibibajana (Alsasa)
Paleta goma jubenilak	Burubara-Valero / Amameadi 2 (Amritzberri)
Paleta goma jubenilak	Hoz-Lujanbio / Amameadi 1 (Amritzberri)
Paleta goma	Manzidor-Martinez / Inbuanrondo

Aranon datorren igandean dira Inauteriak

■ Puska biltzen hasi goizean goiz eta egun osoko festa izango dute.

ARANON datorren igandean izango dira karnabalak, Hernanin baino astebete lehenago. Urtero egun pasa polita egiten dute eta aurten ere halaxe dago antolatua. Ohiturari eutsiz, goizean goiz *puska biltzen* hasiko dira etxetik etxe. Zomorroz jantzi eta 08:30etan Surotik aterako dira, eta etxetik herri osoa pasako dute.

dian San Roke soziedadean bilduko dira bazkaltzera. Denak zomorroz jantzita, zomorro bazkaria deitzen diote.

Bazkalondan, 17:00ak aldera hasita, zahagi dantza dantzatuko dute herrian barrera, eta iluntzean herri afaria. Joan nahi duenak ez du aurretik izenik eman beharrik, afaltzera azaldu eta kito.

Afalondan, berriz, dantzaldia eta Inauteri giro ederra aukeran. □

Zomorro bazkaria Puska biltzea bukatuta, eguer-

ZINEA BITERIN

'Harry Potter' ume eta helduentzat

■ Ostiralean 22:30; larunbatean 16:30, 19:30 eta 22:30; eta igandean 16:30 eta 19:30.

IRRATIAK

(F.M. 99.2) 11:40: Euskeraz nor bere kasa ikasteko metodoaz. AEK-ko Jasone Usandizaga. 12:00: Arantxa Gurutzeaga. UPNAn euskerazko lehen tesia egin duena 12:30: Ramirez udaltzaingo burua, Trafiko lege berriaz.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093
 ► Udaltzaingoa: 943 333288
 ► DYA: 943 464622
 ► Autobusak: 943 556662
 ► Anbulatorioa: 943 557750
 ► Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

► Eguez: Etxebeste
 Elkano 2
 ☎ 943 552087
 ► Guez: Etxebeste
 Elkano 2
 ☎ 943 552087

IRAGARKI MERKEAK

Hernaniko jatetxe batean, ontzi-garbitzeko pertsona bat behar dugu, larunbat eta igandetarako. Kotxea, motoa edo garraio moduren bat beharrezkoa. Interesatuak deitu 943 55 02 40.